



INFORMAZIO PSIKOPEDAGOGIKOA EUSKAL HERRIKO MAPA PUZZLEA

ESAR sailkapena: Muntatzeko jolasa: Disposizio-jolasa.

Ezaugarriak: 100 zatiko puzzlea. Beltzuneak dauden tokiak atzamarraz edo zapi batez igurtzita bakoitzaren azpian ezkutatuta dauden irudiak agertuko dira.

Oinarrizko kompetentziak:

Pentsatzen eta ikasten ikasi (Informazioaren interpretazioa)

Komunikatzen ikasi (Ahozko hizkuntza; Idatzizko hizkuntza)

Elkarrekin bizitzen ikasi (Pertsonarteko harremana; Elkarlana eta talde-lana; Gizarte bizikidetzarako arauak)

Norbera izaten ikasi (Nork bere buruaren estimua; Autonomia; Sentsibiltate estetikoa)

Egiten eta ekiten ikasi (Fase analitikoa: informazioa hartzea eta gordetzea; Sortze-fasea: ideia berriak eta konponbideak lantzea; Ekite prozesuaren aplikazioa)

Curriculum arloak:

Haur Hezkuntza: Ingurune fisiko eta sozialaren ezaguera (Ingurua eta gizarte bizitza; Inguru naturala); Komunikazioa eta errepresentazioa (Hitzezko mintzaira).

Lehen Hezkuntza: Natura, Gizarte eta Kultura ingurunearen ezaguera (Ingurunea eta hura iraunaraztea; Pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza); Euskara eta literatura (Ahozko komunikazioa; Komunikazio idatzia)

Edukia: Euskal herriko mendiak, herriak, ibaiak, folklore adierazpenak, elementu arkitektonikoak, ekonomia-ezaugarriak.

Adina: 5+